

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1334

IRAGARKIA, 2024ko martxoaren 1ekoa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzeko proiektua.

Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan xedatutakoa betez (2013-12-27ko BOE), jendaurrean jartzen da honako proiektu honi buruzko aurretiazko administrazio-baimenaren eta eraikitze baimenaren eskaera:

Espedientea: 01-AT-Y-2022-00072/ 48-AT-Y-2022-00117.

– Eskatzailea: Red Eléctrica de España SAU. Egoitza: Paseo del Conde de los Gaitanes, 177, 28109 – Alcobendas (Madril).

– Eskaeraren helburua: aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitze baimena.

– Kokalekua: Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteak (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteak (Bizkaia).

– Aurrekontua: 915.875 euro.

– Xedea: «Abadiano – Vitoria» linearen garraiatzeko kapazitatea gehitzea. Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 22an onartu zuen «Energia-plangintza. 2021-2026 Energia Elektrikoaren Garraio Sarea Garatzeko Plana» izeneko dokumentuan jasotzen da. Gaur egungo lineak kapazitate hauek ditu: 384 MVA-koa SE Gasteiz eta 38. euskarriaren artean, eta 498 MVA-koa 38. euskarriaren eta SE Abadino-ren artean. Baina kapazitate horiek 502 MVA eta 651 MVA-ra igoko dira, hurrenez hurren.

– Instalazioaren ezaugarriak: Nicolás Cuenca Pradillo industria-ingeniariak 2022ko abuztuan sinatutako proiektuan jasotakoak.

Hori guztia argitara ematen da, eta 20 eguneko epea ematen da, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, interesdunek eta herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria Administrazioari Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko webgunean (www.euskadi.eus), Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 1a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.